

Zer da legionelosi?

Biriketako infekzioa da, sukar handia, buruko mina eta pneumonia dituena. Larria izan daiteke eta ospitaleratu egin behar da.

Zein da gaixotasunaren arrazoia?

Ingurumen-bakterio bat da, Legionella izenekoa, azaleko uretan bizi dena (ibaiak, urtegiak). Egoera horietan, ez du kalterik eragiten osasunean.

Nola irits daiteke eraikinetara?

Azaleko uretatik hornidura-sistemetara pasa daiteke, eta zenbait egoeratan (tenperatura, zikinkeria eta inkrustazioak) eraikinetako instalazioak koloniza ditzake.

Nola transmititzen da gaixotasuna?

Bakterioa ur-hornidurako instalazioetan sartu bada, baldintza jakin batzuetan (tenperatura, zikinkeria eta inkrustazioak), kontzentrazio handietaraino ugaltu daiteke.

Ondoren, bakterioak airean barreia daitezke (dutxan, adibidez) aerosoen eta ur tanta txikien bidez, biriketan sartu eta gaixotasuna eragin dezaketenak.

Gaixotasunaren larritasuna inhalatutako bakterioen kantitatearen eta patogenizitatearen eta eraginpean dauden pertsonen immunitate-egoeraren arabera izango da.

Ez da pertsonen artean transmititzen.

Ez da transmititzen ura edateagatik.

Nork izan dezake gaixotasuna?

Bakterioen eraginpean egoteak ez du esan nahi gaixotu behar duzunik.

Gaixotasuna ohikoagoa da kasu hauetan:

- Gizonezkoetan ohikoagoa da emakumezkoetan baino (3-1)
- 50 urtetik aurrera
- Erretzaileak
- Patologia kronikoekin edo defentsak gutxitzen dituzten tratamenduekin.

Zer egin dezakegu prebenitzeko?

Dutxak eta txorrotak

Seguruagoa da tanta lodiko difusoreak erabiltzea.

Urtean behin gutxienez, ur-zirkuituetako elementuen (dutxako buruak eta txorrotak) difusoreak eta/edo iragazkiak desmuntatu behar dira, kare-inkrustazioak ezabatzeke, produktu egokiak (ozpina edo karearen aurkako beste produktu batzuk) aplikatuz.

Difusoreak eta/edo iragazkiak desinfektatu. Horretarako hamar litro bat uretan sartu hogeita hamar minutuz.

Etxea denboraldi luze batean erabiltzen ez bada, komenigarria da, bueltatzean, txorrotak irekitzea eta ura isurtzen uztea, hodiak garbitzeko. Era berean, gutxi erabiltzen diren txorrotak izanez gero, utzi urari astean behin isurtzen.

Bigarren etxebizitzetan edo erabilera gutxiko etxebizitzetan, uraren zirkuitua purgatu egin beharko da erabili aurretik, eta ura isurtzen utzi beharko da.

Ur bero zentrala edo komunitarioa dagoenean

Komenigarria da auzokideen erkidegoak edo enpresa baimendu batek sistemaren mantentze-lan bat egitea, urteroko prebentzio-tratamenduak barne hartuta. Garrantzitsua da metagailuan uraren tenperatura 60° C-tik gora egotea une oro, urtean behin hustu, garbitu eta desinfektatu, eta metagailuaren hondoa astean behin purgatu.

Termo elektrikoa edo metaketa duen gas-galdara dagoenean

Uraren tenperatura termoa edo metagailuan 60°C-tik gora mantentzea beti, eta instalazioa etengabe martxan izatea.

Ur beroa bat-batean ekoizteko sistemek ez dute arriskurik.

Hidromasajeko bainuontzia badu

Hidromasajeko zorrotadak garbitzea eta desinfektatzea gomendatzen da, dutxetarako eta txorrotetarako adierazitako prozedurari jarraituz.

Legionella ez da hazten 60° C-tik aurrera



Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko eta Adikzioetako Zuzendaritza, Zuzendariordetzak eta Eskualdeak.

Zuzenean / 012 / 945018000




Legionella


Eta legionelosi

Prebentzioa

etxebizitzetan



Zer jakin behar dugu gure etxean prebenitzeko



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD